# ELA Lanbide

Boletín de los trabajadores/as del servicio vasco de empleo

EDITORIALA

## Negoziazioaren beharra

Orain dela zenbait hilabete hasi ziren ezartzen Arreta Eredu berria Lanbideren bulegoetan. Eredu berri horren ondorioetako bat Lanbideko langileen lan-baldintzak okertzea izan da, eta hortaz diskriminazio-egoerak sortu dira kidegoen eta bulegoen artean. Eredua berria ez da negoziatu, arian-arian sartu dute, egintzen bidetik, bulegoetan.

*Eredu berriaren inposaketari ez.

*Balioniztasunarekin ez gatoz bat.

*Lanpostu bakar bat ere deusezteari ez.

*Lanpostuak finkatzearen alde gaude.

*Zerbitzuak esternalizatzeari ez.

*LPZren aldaketa inposaturik ez.

*Arrazoizkoa eta adostua behar du.

ELAren aldetik eredu berri horren ezarpena gelditzea proposatu dugu, eta negoziazio bat hasiera-hasieratik hastea. Lanbideren benetako beharrizanak aztertu behar dira, bulego bakoitzak izan behar duen dotazio kopurutik hasita eta eman beharreko zerbitzuraino. LANBIDE ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA da, eta hori ahaztu bide zaie erakunde horretako arduradunei.

Berriz ere ELAtik gure erabateko sostengua eskaintzen diegu inposaketak gelditzeko helburua duten ekimen guztiei; bai Lanbiden behar bezala ez dabilen arreta-eredua gelditzeko, bai arrazoitu eta negoziatu gabeko Lanpostu Zerrendaren aldaketa gelditzeko ekimenei. Gainera, mobilizazio sendoak egiteko beharra ere ikusten dugu. Badakigu zaila izango dela, baina Lanbiden lortu den guztia mobilizazioen edo erreklamazio juridikoen bidez lortu da... ez dago beste biderik.



## Lanbide pretende modificar condiciones sin negociación

**CRONOLOGíA**

El 10 de mayo de 2018 fuimos a la huelga con un seguimiento satisfactorio. Posteriormente, realizamos Asambleas donde se vio la necesidad de seguir con las movilizaciones, pero debido a que los demás sindicatos no lo veían se paralizó la movilización que teníamos prevista para el 5 de julio.

El 27 de julio, se nos convoca a una reunión con Lanbide y Empleo para informarnos de que debido al Nuevo Modelo de Atención se va a llevar a cabo una modificación de la RPT y que en septiembre se nos llamaría para negociarla con Función Pública. También se nos traslada que se están realizando análisis de cargas de trabajo para determinar el número de dotaciones de cada oficina y la redistribución de las cargas de trabajo. (Todavía estamos esperando resultados).

Una vez pasado el mes de septiembre, volvemos a solicitar reunión con Función Pública y también le pedimos a Lanbide el documento que le presentó a FP para avalar la Modificación de la RPT.

El 31 de octubre FP nos contesta que no tiene intención de reunirse con nosotros.

El 18 de diciembre, ELA acude a una reunión bilateral con Lanbide donde les solicitamos la documentación pendiente de entregar y se nos emplaza a otra reunión que desde ELA solicitamos que sea conjunta, con el resto de sindicatos.

El 8 de enero de 2019 nos reunimos con Lanbide los cuatro sindicatos para exponer nuestras dudas sobre el Nuevo Modelo y solicitar por escrito el documento para estudiarlo, ya que no lo tenemos. Se nos emplaza a otra reunión, el 11 de enero, donde se nos explica brevemente en qué consiste la Modificación de la RPT, y al final de la reunión se nos entrega el documento, del que faltan los anexos.

El 6 de febrero se nos convoca a otra reunión con Función Pública. Se nos aclara que es meramente informativa y no de negociación, ya que lo que tenemos sobre la mesa es una propuesta de Modificación de RTP. Con esta propuesta, Función Pública emitirá un informe, que remitirá a Lanbide. Y una vez de que se tenga el documento definitivo se iniciará la negociación.

**Prebentzioko bileretan (arrisku psikosozialak) zera adierazi du LANBIDEk: eredu berria ezartzen ari den bulegoetan pertsona gehiago izatea ukituak edo edo ukituak izatearen arriskuan, arazo pertsonalengatik da. LANBIDEk ez du ezer bere gain hartu nahi. Lanbidek ezikusiarena egiten die lan baldintzen zailtzeari, lankargari eta erritmo biziagoari, lanaren iraupenari, parte hartzea edo lanaren gaineko kontrolari, garapen pertsonalari, behin-behinekotasunari edo lanpostuan jarraitzeko ziurgabetasunari... Horiek guztiak "arazo pertsonalak" dira Lanbideren aburuz.**

### CONSECUENCIAS DE LA MODIFICACION (lo que conocemos hasta ahora)

Se crean solo dos categorías:

***Administrativo/a Gestor de prestaciones:** Engloba a los actuales Auxiliar Administrativo y Administrativo.

***Técnico de Activacion y Orientacion Socio-Laboral:** Engloba a los actualesTécnicos Gestión Administrativa, Técnicos Formacion y Orientadores.

FP nos explica cómo se plantearía la modificación en base a la normativa que existe actualmente en el Gobierno Vasco, pero que habría que analizar el caso de Lanbide.

Al realizar estos cambios se produciría una Amortización/Creación de nuevo puesto que supondría:

***Funcionarios:** Adscripción de plaza. Para obtener plaza tendrían

## LAS MENTIRAS DE LANBIDE

▼ Dice que está informando a la parte sindical "del tema de la RPT". **MENTIRA**. La única información que se nos trasladó fue la llamada modificación de RPT (versión IV. No hemos tenido las anteriores), después de una hora de explicaciones "deprisa y corriendo", y documento al que le faltaban los anexos.

▼ Dice que no se está produciendo una privatización en Lanbide. **MENTIRA**. La privatización se está llevando a cabo mediante la externalización de servicios (centros colaboradores).

▼ Que no se produce la funcionarización del personal laboral porque los sindicatos no lo hemos solicitado. Ya hemos solicitado la reunión...Veremos...

▼ Que la propuesta de modificación de RPT supone un incremento de 1,5 millones de euros en el capítulo de gasto de personal y que cuando se planteó a la representación sindical fue "bien recibida". **MENTIRA Y MENTIRA.** ¿Entre quiénes se van a repartir esos millones de euros? Desde luego, la parte sindical no pudo "recibir bien" la noticia porque ni lo plantearon...

▼ Dicen que el proceso será largo (además tendrá que haber reuniones de la Comisión de Valoración) y que el posible conflicto será la unificación del personal administrativo/auxiliar así como TGA/Tutor, no así en el caso de Orientadores/TEF... **NO SABEMOS DE DONDE SACAN ESTO...**

▼ Quieren evitar "promociones encubiertas" por medio de la modificación del Complemento de Destino.

▼ Dicen que la parte sindical tiene un papel que jugar tanto en la negociación, como en el Comité de Valoración... tal y cómo se han dado hasta ahora las reuniones (que no ha habido) y cómo nos trasladan la información (faltan anexos a la versión IV de la modificación de la RPT, no hemos tenido conocimiento de las versiones 1,2,3, no nos han facilitado documentos de análisis de cargas de trabajo, tampoco las evaluaciones que se han podido realizar de la implantación del Nuevo Modelo de Atención en oficinas piloto)

▼ Dicen que la amortización afectaría a 150 puestos, como mucho. Y lo dicen como si no fuera importante, pero lo cierto es que según el documento que se nos trasladó un 70% de la plantilla se va a ver afectada de una u otra forma...

▼ Y dicen, **Y ÉSTA ES LA MAYOR MENTIRA** que lo que suceda con las personas afectadas no lo decidirá Lanbide sino la parte sindical reunida con la Administración. Y siguen reiterando que les sorprende el rechazo a la propuesta de RPT, cuando en las primeras reuniones los sindicatos lo veían como algo positivo.

¿En qué reuniones los sindicatos hemos trasladado esto? Volvemos a insistir en que sólo ha habido un documento de modificación de RPT y ni siquiera completo.

que presentarse al siguiente Concurso Traslados.

***Laborales fijos:** Se les da una plaza que no tiene por qué ser en Lanbide.

***Funcionarios Interinos:** Vuelven a su bolsa de origen.

***Laborales indefinidos por sentencia:** Vuelven a bolsa de origen. Se pierde el indefinido por sentencia.

Habría que analizar cómo gestionar algunas bolsas de puestos, pero se hará tras disponer del documento definitivo, como todas las demás excepciones.

Ahora las bolsas que hay son unas, pero depende cómo "quede el tema" se podrían plantear excepciones e, incluso, agrupar bolsas que existen, lo que se plantearía al tener el documento definitivo de modificación.




## ELA NO VA A TRAGAR

- **No vamos a admitir la imposición del Nuevo Modelo.**
- **No queremos la polivalencia.**
- **No vamos a pasar por la pérdida de un solo empleo.**
- **Abogamos por la consolidación de los puestos existentes.**
- **No admitimos la externalización de servicios.**
- **No admitimos la modificación de la RPT sin fundamentar.**

## ¡HAY QUE MOVILIZARSE!

**Hay que tener en cuenta, que tal y cómo nos lo plantean, cuando nos convoquen, por parte de Función Pública a esa mesa de negociación, ya habrá pocas posibilidades de modificar/cambiar/añadir nada.**

**Hasta la fecha estamos teniendo muchos problemas para que haya reuniones o que nos faciliten documentación... No podemos pensar que van a funcionar de forma diferente...**

**Será una mesa en la que nos presentarán la modificación de RPT y no se negociará nada, si quisieran negociar "habrían puesto" desde hace tiempo el Nuevo Modelo de Atención con la explicación/aclaraciones a las dudas...y las diferentes versiones de la modificación de la RPT.**

**Todo esto se lo hemos trasladado al resto de sindicatos pero no están por la labor de realizar movilizaciones contundentes.**

**SI QUEREMOS QUE LA ADMINISTRACCION/LANBIDE SE MUEVAN NOS TENEMOS QUE MOVER. NO QUEDA OTRA**

**Tenemos que ser capaces de incidir en la Modificación de la RPT que nos plantean y en el Nuevo Modelo de Atención que están implantando.**

**Y ESTO DEPENDE DE TODOS Y DE TODAS LAS QUE TRABAJAMOS EN LANBIDE...**

## AZKEN ALBISTEAK

**FUNTZIONARIZAZIOA.** Martxoaren 25ean ELAk idazki bat erregistratu zuen Funtzio Publikoan, uneotan geldirik dagoen funtzionarizazioaren gaiaz aritzea helburu izango zuen mahai bat eratzeko eskatuz.

**KIDEGO ETA ESKALEN LEGEA.** Apirilaren 11n mahaiko bilera egiteko dei bat jaso genuen, apirilaren 15ean Kidego eta Eskalen Legeaz aritzeko. Aurkeztu ziguten dokumentua zirriborro bat da, arretaz irakurri beharrekoa, eta azpimarragarriena zera da: A eta B taldeak hartuko lirateke eraginpean, 14 eskala izatetik 42 eskala izatera aldatuko baitira.

Zirriborro horretan ikusi dugunez, 2 eskala sortuko dira Lanbiderekin lotuak:

*Fakultatiboen Kidego Berezia: Lan-arretako fakultatiboen eskala (TEF, orientatzailea, enplegu eta enplegurako prestakuntzako arduraduna).

*Teknikarien Kidego Berezia: Lan-arretako teknikarien estala (TEF).

Lege hori mahai gainean jarri dute, enplegua finkatzeko aukerak lehenago eskaini gabe (indarreko araudian aukera horiek jasota badaude ere). Horrek aditzera ematen digu zenbateko apustua egiten duen Eusko Jaurlaritzak bere langileen alde.

Aurkezturiko Eskalen Legearen zirriborroak kontra egiten die zenbait araurí, alegia, lan-poltsak, zerbitzu-eginkizunak edo lekualdatze-lehiaketak erregulatzen dituzten arauei. Arau horiek lege berriaren zuzeneko eragina izango dute, eta administrazioak ez du inolako proposamenik gai horietaz.

Eskalen lege berri bat orain bultzatzea, hainbeste urteren ostean azkenean egitekotan dauden EPE ugarien aurretik, ez da itxurazkoa gure ustez. Egoera berez zaila bada, horrela are zailagoa izango da (Eusko Jaurlaritzaren utzikeriagatik).

Gobernuak, lehendabizi, oraingo plantillaren prekarietate eta ziurgabetasunaren egoera konpondu behar du, behin-behinekotasun tasak lotsagarriak baitira, eta enplegua finkatzeko baliabide argi eta eskuragarriak proposatu. Horrekin batera, langile finkoentzako garapen profesionalaren proposamen egingarria ere egin behar du.

Lehenengo, finkatu; gero, berrantolatu.



750 kidetik 668k eman zuten Lakuntzaren hautagaitzaren aldeko botoa (%95ek) Donostiako Kursalean egindako ezohiko Kongresuan

# Mitxel Lakuntza ELAko idazkari nagusi berria aukeratua izan da

Erreleboa emateko eguna izan zen pasa den apirilak 5a: Adolfo Muñoz Txiki-k Mitxel Lakuntzari pasatu zion idazkari nagusi kargua, Donostiako Kursaalen egindako ezohiko kongresuan. 750 kidetik 668k eman zuten Lakuntzaren hautagaitzaren aldeko botoa —%95ek—; 27k aurkakoa, eta 8k zuria.

Idazkari nagusiarekin batera, Batzorde Eragilea berritu zuten sindikatuko kideek.

Mitxel Lakuntza ELA-Nafarroako koordinatzailea da 2004az geroztik, eta Batzorde Eragileko kidea. Elektronika-teknikaria da, eta ELAko afiliatua 1999. urtetik; Gamesako langilea zen urrats hori egin zuenean. Enpresa horretan ordezkaria izan zen, eta sindikatuaren egituran 2001. urtean sartu zen, hainbat federazioren arduradun bezala.

Autonomiaren garrantzia nabarmentzen hasi zen Lakuntza bere hitzaldian, zorrik ez izateak independentzia ematen duelako diskurtso propioa edukitzeko. “Pertsonen arteko borrokak nahi ditu kapitalismoak; guk, bertikalak, elitearen aurkakoak”. Klase borrokak beste dimentsio bat hartzen ari dela dio, eta sindikalismoak “aterpe ideologikoa” izan behar duela.

LABi ere helarazi zion mezua: Aliantzaren aukera nola dagoen jakiteko grebei begiratu beharko dela aurreratu zuen. Gainerako eragileei ere garbi mintzatu zitzaien: “Kontraboterean jarraituko dugu, jendea antolatzen, grebak egiten”.

## Agur Txiki

Adolfo Muñozek —Txiki—, azken hamarkadan ELAko idazkari nagusi izandakoak, agurtzeko eman zuen hitzaldi hunkigarrian bere harrotasuna agertu du proiektu kolektibo honetan parte hartu izateagatik. “ELAk zenbait gauza ondo egin ditu: Lehenengoa, bere barne-kohesioa zaintzea, kontrabotereko sindikalismo bat sendotzeko. Bigarrena, errealitatetik ez aldentzea; batzuetan, errealitatea deskribatze hutsa, besterik gabe, iraultzailea ere bada, eta gure kontakizuna oso indartsua da. Hirugarrena, militanteei ikuspegi bat ematea; sindikatuak jendearen kezkak eta arazoak lehenesten baditu, sindikalismoak berak eta klase-izaerak bizirik iraungo dute, eta orduan gure jendea antolatzeko moduan egongo gara. Eta laugarrena, aliantza sindikalak eta sozialak sendotzea, kontrabotere eta borrokaren ikuspegitik. ELAk ondotxo daki zer den eskuinaren hegemonia, horren ondorioak, eta aliantzen garrantzia”, azpimarratu zuen.